AZAROA
2026

BEASAINGO UDAL
ALDIZKARIA

#55

BEASAINDIK

Beasaingo Udala

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Sua itzaltzetik, kulturaren txinparta piztera

Bonberie renace como espacio cultural accesible

Valoración positiva del servicio de alquiler de vehículo eléctrico compartido

02

Emakumeak Ahalduntzeko Eskolaren edizio berria

06

Zuen alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

Aukera berriak eta emandako urratsak

Planifikatu eta abian jarritako proiektuek herritarren artean erantzun ona dutela ikustea da udal-lana benetan **asetzen** duen saria. Azken hilabeteotako berriek erakusten dute hartutako norabidea egokia izaten ari dela: zerbitzu berri baten bilakaera arrakastatsua eta herriko ondare-azpiegitura baten berrerabilpen ikusgarria ditugu esku artean.

Alde batetik, urtebeteren ondoren, auto elektriko partekatuen emaitza onak ez dira datu hutsak; beasaindarron ohitura berrien eta Udalak egindako apustu baten berrespena dira. Kutsadurarik gabeko 28.500 kilometro baino gehiago eginez, herritarrek erakutsi dute garraio publikoaren osagarri berde honek tokia izan dezakela gurean.

Bestetik, herri baten garapena ez da soilik zerbitzuak zabaltzea, ditugun espazioak gaurkotzea eta erabilera berriekin aberastea ere bada. Ikuspegi horrekin heldu genion Arana kaleko Bonberie eraikinari. Garai batean **suhiltzaileen biltokia** zen azpiegitura zaharrak balio berritua jaso du: espazioaren aprobetxamenduri esker, gure ondareak erabilera publikoko kulturgune irisgarri eta moderno gisa **itxura berria** hartu du.

Zerbitzuetan asmatzeak eta herriko txokoak berrerabiltzeak komunitate jasangarriagoa eta gaurkotuagoa egiten gaituzte. Eskerrik asko zerbitzu hauen erabiltzaile izateagatik eta Beasain berritzaileago bat elkarrekin eraikitzeagatik.

Nuevas oportunidades y proyectos consolidados

Comprobar que los proyectos planificados reciben una respuesta tan positiva por parte de la ciudadanía es la mayor satisfacción en la gestión municipal. Los últimos datos reflejan que el rumbo trazado es el adecuado: por un lado, tras un año de funcionamiento, los más de 28.500 km recorridos en vehículos eléctricos compartidos avalan la apuesta por una movilidad limpia, eficiente y compartida. Por otro lado, avanzar implica también reutilizar y optimizar nuestros espacios. Con esta visión, el histórico edificio Bomberia en Arana kalea se revaloriza, transformando el antiguo almacén del parque de bomberos en un centro cultural moderno, accesible y lleno de vida para todo Beasain.

Gracias por ser parte activa de estas iniciativas y seguir construyendo un municipio más sostenible e innovador.

Buena acogida al alquiler de vehículos compartidos

El servicio de coche eléctrico compartido alcanza los 28.500 km

El servicio de *car sharing* impulsado por el Ayuntamiento de Beasain y la empresa Guppy se consolida como una alternativa clave para la movilidad sostenible. Desde su puesta en marcha, se han registrado 230 alquileres y más de 28.500 km recorridos libres de emisiones. La flota cuenta ya con tres vehículos eléctricos ubicados en Gernika pasealekua, ofreciendo una opción flexible y 100% renovable que complementa al transporte público. Con un 60% de usuarios habituales, el servicio destaca además por ser la primera app de vehículo eléctrico compartido disponible en euskera.

Alokairu zerbitzuari harrera ona

Beasaindarrek gero eta gehiago erabiltzen dute udalaren auto elektriko partekatuen zerbitzua

"54 erabiltzaileetatik, % 60k behin baino gehiagotan erabili dute zerbitzua, autoa jabetzan izatearen kostu finkorik gabe mugitzeko abantaila bermatzen duelako."

Gernika pasealekuko auto elektriko partekatuek harrera bikaina izan dute herritarren artean. Iaztik hona 28.500 kilometrotik gora egin dituzte kutsadurarik gabe, garraio publikoaren osagarri eroso eta lehiakor gisa sendotuz.

Autoa jabetzan izateko beharrik gabe, garraio berdeagoa, malguagoa eta merkeagoa eskura dute dagoeneko beasaindarrek. Udalak eta Guppy enpresak martxan jarritako car sharing zerbitzuak hazkunde etengabea erakutsi du 2025eko apirilean abiatu zenetik. Hasieran proba gisa bi ibilgailu jarri baziren ere, erabilera handia ikusita flota hiru auto elektrikoz osatzera igaro da gaur egun.

Ibilgailu hauek ez dira herri barruan ibiltzeko bakarrik erabili; beasaindarrek batez ere joan-etorri luzeagoetarako hautatu dituzte. Hain zuzen ere, erabilera gehienak Beasainen hasi eta bertan amaitu dira, Donostiarekin, Loiuko aireportuarekin edo distantzia luzeagoko helburuekin lotura zuzena eginez. Gainera, aplikazioa euskaraz erabili daitekeen herrialdeko lehenengo car sharing zerbitzua da.

Gernika pasealekuko aparkaleku estrategikoan kokatuta—geltokietatik oso gertu—, ibilgailu hauek % 100ean iturri berriztagarrietatik datorren argi-indarra erabiltzen dute kargatzeko.

28.500 km
baino gehiago egin dituzte kutsadurarik gabe.

89 km-ko
batez besteko distantzia bidai bakoitzeko

230 alokairu
erregistratu dira guztira

54 erabiltzaile ezberdin, eta horien % 60 bezero errepikatuak

3 ibiligailu
elektriko eskuragarri (Tesla Model 3 eta Renault Zoe Berria, % 50 merkeagoa)

Bonberie

Arana kaleko suhiltzaileen biltegitik, kulturaren topalekura

Beasaingo boluntarioen lanabesak gordetzen zituen eraikin historikoak ateak zabaldu dizkio erabilera publikoari, herriaren bihotzean giro sozial eta kulturala biziberritzeko helburuz.

Iragana eta etorkizuna gurutzatu egiten dira Arana kalean. 1940 inguruan eraiki zenetik, herriko txoko horrek Beasaingo babes-sarearen historia gordetzen du. Garai batean, hormetan zintzilik egon ohi ziren tokiko suhiltzaile boluntarioen kaskoak, babes-jantziak, aizkorak nahiz tutu malguak; baita zati luzagarridun egurrezko eskailera bereziak ere, gurpildun mecano moduko bat osatuz herritarrei laguntzeko prest zeudenak. Gaur egun, ordea, eraikin ikoniko horrek ez du garairik gabeko tresnarik gordetzen: "Bonberie" izenari eutsita, izaera erabat berriarekin jaio da berriro.

Biltegi izatetik kulturgune izatera

Udalak eraikina birgaitzeko abiatutako egitasmoak (721.160 euroko inbertsioarekin) erabilera anitzeko azpiegitura bilakatu du gunea. Garai bateko 100 metro koadroko espazio irekiari bolumen berriak atxiki zaizkio (120 metro koadroraino helduz), erakusketak, hitzaldiak, aurkezpenak, tailerrak edo musika emanaldiak modu eroso eta modernoan hartzeko.

Irisgarritasunak ere lekua du eraberritze honetan: aldapa eta sarbide berriei esker, mugikortasun murriztua duten pertsonek erraztasun guztiak izango dituzte bertaratzeko, inguruko behe-solairuetako lokalei ere bizitza berria emanez. Dagoeneko hartu du lehen ekitaldia —Beasaingo 35. Jendaurreko Margo Sariketaren erakusketa eta sari-ematea—, nahiz eta inaugurazio ofiziala azken xehetasunak amaitzean egingo den.

Kalea eta herritarrak lotzen dituen ikurra

Proiektu honen zergatia ez da soilik horma zaharrak berritzea. Eraberritzeak Arana kalea bera biziberritzea du helburu, beasaindarren eguneroko joan-etorrietan topagune atsegin bihurtuz. Horretarako, kristalezko fatxada beiratu zabala instalatu da: ateak irekitzean, barruko kultur jarduera kalera bertara zabaltzen da, igarotzen diren herritarrak parte hartzera gonbidatuz.

Aizkora eta kaskoen ordez, sormena eta komunitatea dira nagusi orain. Bonberie ez da atzean geratu den oroigarri bat; Beasaingo kultur bizitzaren motor berria da.

De antiguo parque de bomberos a nuevo punto de encuentro cultural en Arana kalea

El emblemático edificio construido hacia 1940, que albergó durante décadas el equipo y las mangueras de los bomberos voluntarios de Beasain, inicia una nueva etapa tras su reforma integral (721.160 €). Convertido en el nuevo centro cultural "Bonberie", el espacio de 120 m² totalmente accesible está equipado para acoger exposiciones, conferencias, talleres y actuaciones musicales.

Su diseño busca dinamizar Arana kalea: sus amplias puertas acristaladas permiten abrir las actividades hacia el exterior, invitando a la ciudadanía a participar. Tras acoger su primer evento con el 35º Certamen de Pintura al Aire Libre, el centro celebrará en breve su inauguración oficial, consolidándose como un espacio polivalente al servicio de Beasain.

Martin Garciak utzitako argazkia / Foto cedida por Martín García

Garai bateko argazki zaharrean eskuinean ikusten da suhiltzaileen eraikina Corpus Christi eguneko prozesioa bertatik pasatzean.

En la foto antigua se observa a la derecha el edificio de bomberos el día de la procesión del Corpus.

Ekipamendua equipamiento

Sukaldetxoa office
komuna baño
biltegia almacén
kanpoko egon lekua estancia exterior

Oria ibaiaren ertzeko natur bide berria prest urte amaierarako

Udalak azken txanpan du Oria ibaiaren ertzetik igaroko den kilometro bateko natur bide berriaren eraikuntza, Goierriko bidegorri-sarea osatu eta mugikortasun jasangarria sustatzeko helburuz.

Proiektua osatzeko, Zumadi inguruan ibaia zeharkatuko duen egur laminatuzko 42 metroko zubi dotorea jarriko da. Bide osoak argiztapena eta zoladura egokitua izango ditu (asfalto inprimatua hirigunean eta lurrezko pista landa-eremuan), Beasain, Olaberria eta Idiazabal modu seguruan lotuz. Lan guztiak urte amaierarako amaituta egotea aurreikusten da.

La nueva vía natural del Oria para finales de año

El Ayuntamiento avanza en la construcción del nuevo trazado peatonal y ciclable de un kilómetro junto al río Oria. Con el tramo urbano avanzado, tan solo resta la colocación del puente de madera laminada de 42 metros sobre el río. La infraestructura, totalmente iluminada, conectará Beasain, Olaberria e Idiazabal a finales de año.

Landa-lurren muga guztiak digitalizatzeko azken aurreko fasea abian

Beasaingo Udalak udalerriko mendi eta landa-lurren kudeaketa osoa digitalizatzeko proiektuaren laugarren eta azken aurreko fasea jarri du martxan. Orain, 12, 13, 14 eta 17. poligonoetako lursailak zehatz-mehatz neurtu eta mugatuko dira GPS koordenatuen bidez.

Deialdiak erantzun ezin hobea izan du: udaletxean egindako bilera informatiboetan 82 lur-jabe bildu dira lana bertatik bertara ezagutzeko. Prozesu honek doako abantaila handiak dakarzkie jabeei zein administrazioari: katastroko akatsak zuzentzen ditu, segurtasun juridiko osoa ematen du jabetzen inguruan eta oinordetza, salerosketa nahiz nekazaritza-laguntzen izapideak nabarmen errazten ditu.

Penúltima fase para la digitalización del suelo rural

El Consistorio ha iniciado la cuarta fase para delimitar digitalmente las parcelas rurales de los polígonos 12, 13, 14 y 17 mediante coordenadas GPS. Las reuniones informativas contaron con la asistencia de 82 propietarios. El proyecto, totalmente gratuito para el particular, aporta seguridad jurídica, corrige errores catastrales y facilita trámites de herencias o ayudas agrícolas.

Emakumeentzako Jabetze Eskolak udazken-neguko ikastaroak abiatu ditu

Berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea ardatz hartuta, Beasaingo Jabetze Eskolak udazken-neguko edizio berria jarri du martxan. Egitarauak 11 ikastaro eta tailer praktiko biltzen ditu (hala nola, mekanika, irakurle eskola, biodantza edo WikiEmakumeok), otsailera arte luzatuko direnak.

Egitasmo honen helburu nagusia emakumeen arteko topagune seguruak sortzea, autoestimua zein trebetasunak sendotzea eta gizarte-eraldaketa bultzatzea da. Horrez gain, doako aholkularitza juridiko, sexu-aholkularitza eta atzerriko tituluak homologatzeko zerbitzuak ere eskaintzen dira. Informazioa jaso eta izena emateko, erabili erantsitako QR kodea.

Nueva edición de la Escuela de Empoderamiento femenino

La Escuela de Empoderamiento para Mujeres arranca su programación de otoño-invierno con 11 cursos y talleres prácticos enfocados al aprendizaje, la formación y la autogestión. La iniciativa busca crear espacios seguros de encuentro y participación activa. El programa incluye además servicios gratuitos de asesoría jurídica y sexual. Inscripciones mediante código QR.



Aisialdiko begirale ikastaro berria gazteentzat

Urriaren 3an hasiera eman zitzaion Beasaingo Udalak antolatutako Haur eta Gazteen Aisialdirako Begirale ikastaroari. Guztira 24 gaztek (horietatik 18 beasaindarrak) ekin diote Eusko Jaurlaritzak homologatutako titulu ofiziala lortzeko prestakuntzari.

Ekimen honek urtez urte erantzun bikaina lortzen du, bi ardatz nagusi lotzen dituelako: aisialdi hezitzailean euskararen erabilera sustatzea eta gazteei lan-aukerak (enplegua) zabaltzea. Maiatzera bitartean, ikasleek 150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko osatuko dituzte herrian bertan. Beasaindarrek % 50eko hobaria izan dute matrikulazioan.

Arranca el nuevo curso oficial de monitor/a de tiempo libre

Un total de 24 jóvenes han comenzado la formación homologada por el Gobierno Vasco para obtener el título oficial de monitor/a de tiempo libre. Esta iniciativa consolidada fomenta el uso del euskera en el ocio educacional y abre puertas al empleo juvenil. El Ayuntamiento subvenciona el 50% de la matrícula a las personas empadronadas en el municipio.

GAU BELTZA

Urriak 31 17:00etan

Iritsi da Gau Beltza! Bi tailer antolatu ditugu Igartzan. Hasteko, arimak uxatzeko aurpegi estalkiak eta bestetik, bidea argitzeko kandela apainketa. Etorri eta prestatu Gau Beltzerako! Tailerrez gain, jolasak eta txokolatada eongo da.

Beasaingo Udala

IGARTZAKO
MONUMENTU MULTZOA

BLUES
GASTRO BAR

Doako txokolate beroa guztiontzat
*Blues Gastro-Bar*en eskutik